



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## 2010EKO MARTXOAREN 4KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 4 DE MARZO DE 2010

1. Bateriaezintasunen Batzordearen irizpena, Miren Josune Gorospe Elezkano legebiltzarkidearen bateragarritasun-egoerari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\01\01\00\0086]

Irizpena onetsi da.

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de la parlamentaria D.ª Miren Josune Gorospe Elezkano. [09\01\01\00\0086]

Se aprueba el dictamen.

2. Mozioa, Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, indarrean dagoen legean aurreikusitako ikuskapen-mekanismoak martxan jartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0030]

EA-NV, ES eta Mistoa-EA taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea betetzeko, lege bion asmoa modu eraginkorrean beteta, beharrezkoa balitz erregelamendu edo legeen bidezko garapena sustatuz".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, relativa a la puesta en marcha de los mecanismos de inspección previstos en la legislación vigente. [09\11\03\00\0030]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y Mixto-EA.

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir la Ley 18/2008 de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, y la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, de forma que se dé cumplimiento eficaz del espíritu de ambas leyes, impulsando desarrollos reglamentarios y/o legislativos, si fuese necesario".





**3. (deialdiko 4. puntua) Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren jardueraren plan bat egiteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0187]**

ES eta ETP taldeek hitzartutako osoko zuzenketa onetsi da.

41/2010

- "1. Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du Legebiltzarreko Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 30ean berrikuntza arloko jarduerari buruz hartutako erabakia.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren etorkizunaren berri eman diezaiola Ganberari ohiko bilkura-aldi hau amaitu baino lehen".

**4. (deialdiko 5. puntua) Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako sozietate edo fundazioen bileren aktak, eta bereziki Guggenheim Bilbao Museoko Patronatuaren, Batzorde Eragilearen, Kontseiluaren eta Sozietateen Juntaren bilerenak, Eusko Legebiltzarrari bidaltzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0188]**

ES, ETP eta Mistoa-EA taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

42/2010

- "1. Eusko Legebiltzarrak bere kezka adierazten du gardentasunik gabeko eta iluntasun-egoerak direla-eta, hain zuzen ere, Legebiltzar honek onartu dituen Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetako diruarekin lagundutako edo Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten elkarte edo partzuergo, sozietate eta fundazioei dagokienean.

**3. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a un plan de actuación del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación. [09\11\02\01\0187]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos SV y PV.

41/2010

- "1. El Parlamento Vasco ratifica el acuerdo alcanzado en el Pleno de la Cámara el 30 de octubre de 2009, relativo a la actuación en materia de innovación.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a dar cuenta a la Cámara sobre el futuro del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, antes del final del presente periodo ordinario de sesiones".

**4. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa al envío al Parlamento Vasco de las actas de las reuniones de sociedades o fundaciones financiadas por el Gobierno Vasco, y en particular del Patronato, Comité Ejecutivo y Consejo y Junta de Sociedades del Museo Guggenheim Bilbao. [09\11\02\01\0188]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV y Mixto-EA.

42/2010

- "1. El Parlamento Vasco muestra su preocupación por las situaciones de falta de transparencia y opacidad en las fundaciones, sociedades, consorcios o asociaciones participadas o subvencionadas por dinero procedente de los presupuestos de la Comunidad Autónoma vasca aprobados por esta Cámara.





2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez eta antola ditzala lege-eta araugintza-neurri egokiak, Eusko Jaurlaritzaren edo bere enpresa, erakunde edo organismo autonomoren baten partaidetza edo finantzaketa duten elkarte, partzuergo, sozietate eta fundazioen kudeaketa, behin betiko, gardentasun publikoko irizpideekin bat eginez, Legebiltzarraren kontrolpean egon ahal izan dadin".

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno a que presente y articule las medidas legales y normativas oportunas para que se permita con carácter definitivo que la gestión de fundaciones, sociedades, consorcios y asociaciones participadas y financiadas por el Gobierno Vasco o alguna de sus empresas, entes u organismos autónomos pueda ser controlada por la Cámara con criterios de transparencia pública".

**5. (deialdiko 6. puntua) Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, harrobien lurralde-plan sektorialari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0210]**

**5. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre el plan territorial sectorial de canteras. [09\11\02\01\0210]**

Jatorrizko testua onetsi da.

Aprobado el texto original.

43/210

43/210

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, 2010 urteko lehenengo sei hilekoan, Harrobien Lurralde Arloko Plana, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Batzordean, eta Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzordean".

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que presente el Plan Territorial Sectorial de Zonas Canterables en las comisiones de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el primer semestre de 2010".

**6. (deialdiko 7. puntua) Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, banka etikoari babes eta bultzada publikoa ematearen gainean. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0230]**

**6. (punto 7 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, relativa al apoyo e impulso público a la banca ética. [09\11\02\01\0230]**

EA-NV, ES eta Mistoa-EB hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y Mixto-EB.

44/2010

44/2010

"Eusko Legebiltzarrak bere babesa ematen die banka etikoaren ekimenei, diruaren kudeaketa zehatz baten aldeko apustua egiten duten proiektu gisa eratzen diren neurrian. Diruaren kudeaketa horrek enplegua eta gizarteratzea sustatzen du, eta

"El Parlamento Vasco muestra su apoyo a las iniciativas de la banca ética, en la medida en que se constituyen como proyectos que apuestan por una gestión del dinero que promueve la generación de empleo y la inclusión social, y cuya finalidad





bere helburua da bankak errealitatea bere ekintzen bidez aldatu nahi duten eta onuragarritasun soziala baloratzen duten pertsonentzat funtzionatzea.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta gainontzeko Euskal Herri Administrazioei, bai eta euren partaidetza duten enpresei, ondokoa eskatzen die:

1. Bakoitzaren eskumen-eremuaren arabera, hitzarmenak sortu ditzatela kontsumo arduratsuko, herritarren parte hartzearen garapeneko eta balore solidarioen sustapeneko herritar-sare horien antolatze lanei babesa emateko, bereziki finantza-produktuen kontsumo arduratsuarekin konprometitutako herritarren sare iraunkorrek antolatzen dituen proiektu gisa.
2. Euskadin banka etikoaren finkapena babes dezatela, ahal den neurrian bere finantza-zerbitzuak baliatuz. Zehazki, banka etikoan gordailuak ezartzea gomendatzen da.
3. Bakoitzaren eskumen-eremuaren arabera, azter ditzatela banka etikoaren entitateekin batera, hala nola Fiare edo antzeko izaera duten beste batzuekin, kolektibo ahulei eta beraiekin lan egiten duten erakundeei laguntzea helburu duten kreditu-formulak. Horren harira, eskatzen da kreditu-mekanismoak azter ditzatela kolektibo hauekin konprometitutako erakundeekin, erakunde horiek –diru-laguntza baten onuradunak izanda– ez baldin badituzte oraindik jaso esleitutako diru-kopuruak. Horrela, aurretiaz erabili ahal izango dituzte diru horiek, finantza-gastu handirik izan gabe. Era berean, eskatzen da garatu dezatela ondorengoetara bideratutako arrisku-kapitaleko eta hazi-kapitaleko produktuen antolapena: Ekonomia Solidarioko enpresak babestera, batez ere gizarteratze enpresak, eta hainbat motatako gizarteratze prozesuak garatzen dituzten pertsona ahulei laguntzeko mikro-kreditu-programak bultzatzea<sup>9</sup>.

reside en que la banca funcione para personas que deseen cambiar la realidad con sus acciones y que valoren la rentabilidad social.

Así mismo, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al resto de las Administraciones Públicas Vascas, así como a sus respectivas empresas participadas:

1. A que, de acuerdo a sus ámbitos competenciales, establezcan convenios para el apoyo a las tareas de articulación de estas redes ciudadanas de consumo responsable, de desarrollo de la participación ciudadana y de promoción de valores solidarios, especialmente como un proyecto que articula redes permanentes de ciudadanía comprometida en el consumo responsable de productos financieros.
2. A que apoyen la consolidación de la banca ética en Euskadi, utilizando en la medida de lo posible sus servicios financieros. Particularmente, recomienda establecer depósitos en banca ética.
3. A que, de acuerdo a sus ámbitos competenciales, estudien de manera conjunta con las entidades de banca ética, como Fiare u otras de naturaleza análoga, fórmulas de crédito orientadas al apoyo de colectivos vulnerables y a las organizaciones que trabajan con ellos. En este sentido, se insta a estudiar mecanismos de crédito con aquellas organizaciones comprometidas con estos colectivos que, siendo beneficiarias de una subvención, no hayan aún recibido los importes adjudicados, de tal forma que puedan disponer anticipadamente de ellos, sin que les suponga un alto gasto financiero. Asimismo, se insta a desarrollar la articulación de productos de capital riesgo o capital semilla orientados al apoyo de empresas de la Economía Solidaria, especialmente las empresas de inserción, así como al impulso de programas de microcrédito orientados al apoyo de personas vulnerables que desarrollan procesos de inserción de diverso tipo<sup>9</sup>.





**7. (deialdiko 8. puntua) Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, pertsonal sanitarioa emakumeen kontrako indarkeria-gaietan prestatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0190]**

Onetsi egin da.

45/2010

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala Osakidetzaren prestakuntza-plan korporatibo eta eguneratu bat, 6 hilabeteko epearen barruan, Osasun eta Kontsumo Batzordean. Plan horretan sartu beharko da pertsonal sanitarioa emakumeen aurkako indarkeriari buruz gaitzeko prestakuntza. Arreta berezia emango zaie oinarritzko osasun-laguntzari, larrialdietarako zerbitzuei, buru-osasuneko zerbitzuei eta ginekologia, obstetria eta traumatologia espezialitateei.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin ditzala arestian aipatu diren arloetarako laguntza-gidaliburu espezifikoak, eta egokitu ditzala gidaliburuetakoko ekintzak emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren gaixoak izan daitezkeen faseetara.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio segi dezala Protokolo Sanitarioaren berri ematen pertsonal sanitarioak behar bezala ezagutu eta erabiltzea izan dezan".

**8. (berria). Chileko herriari elkartasuna adierazteko adierazpen instituzionala. [09\11\05\00\0022]**

"Joan den larunbatean, otsailak 27, lurrikara batek, bere puntu gorenean Richter eskalako 8.8ra iritsi zenak, giza hondamendia eragin zuen, azken hamarkadetan aurrekaririk gabea eta Txileko eskualde osoak suntsitu dituena.

Txile eta Euskadi oso batuta egon dira historikoki lotura pertsonal, afektibo, kultural eta komertzialen bitartez.

**7. (punto 8 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a la formación del personal sanitario en materia de violencia contra las mujeres. [09\11\02\01\0190]**

Aprobada.

45/2010

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que en un plazo de 6 meses presente ante la Comisión de Sanidad y Consumo un plan de formación corporativo de Osakidetza actualizado con la inclusión de formación necesaria para capacitar al personal sanitario en materia de violencia contra las mujeres, con especial incidencia en atención primaria, los servicios de urgencia, los servicios de salud mental y las especialidades de ginecología, obstetricia y traumatología.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que elabore guías de apoyo específicas en las áreas antes mencionadas, adaptando las actuaciones propuestas en estas guías a las diferentes fases en las que se puedan encontrar las pacientes víctimas de violencia contra las mujeres.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que siga difundiendo el Protocolo Sanitario para que el personal sanitario pueda conocerlo y aplicarlo adecuadamente".

**8. (nuevo). Declaración institucional en solidaridad con Chile. [09\11\05\00\0022]**

"El pasado sábado, 27 de febrero, un terremoto que alcanzó en su punto máximo 8,8 en la escala de Richter, ha provocado una catástrofe humana, sin precedentes en las últimas décadas, que ha devastado regiones enteras de Chile.

Chile y Euskadi han estado históricamente muy unidos por lazos personales, afectivos, culturales y comerciales.





## Eusko Legebiltzarrak

Aditzera ematen du, familia asko itxaropena galduta eta nazio osoa konsternaturik dagoeneko honetan, bere doluminik zintzoena eta euskal herriaren Txileko herriarenganako elkartasun maitekorra.

Eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari esleitu dezala larrialdiko laguntza bat, Laguntza Humanitarioko programatik hartua, Txileko Gobernuari pertsona kaltetuenak artatzen eta azpiegiturak konpontzen laguntzeko, Txileko Gobernuak adierazitako beharren arabera.

Dei egiten die gainerako euskal instituzioei, bai eta Estatukoiei ere, Txilerekiko elkartasunez hondamendiaren ondorio zuzenenak arintzeko eta oinarrizko azpiegiturak konpontzeko baliabide egokienak ematen laguntzeko".

## 9. (berria). Soldata-berdintasunaren aldeko adierazpen instituzionala. [09\11\05\00\0023]

"Europar Batasuna otsailaren 22an soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko eguna izendatzea bultzatzen ari da. Europar esparruko ikerketek adierazten digute ezen, orokorrean genero soldata-arrakala murrizten joan den arren, oso astiro murrizten dela, eta emakumeek gizonekin alderatuz duten enplegu-kalitate eskasagoaren alderdirik kezkarrienetako bat da.

Genero soldata-arrakala emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren agerpenetako beste bat da, kasu honetan lan-merkatuetan, eta emakumei eragiten die, edozein delarik ere duten adina edo prestakuntza. Eta datu objektiboek zein egindako inkestek erakusten digute soldata-arrakala, gutxitu beharrean, lehengoan dagoela, eta portzentaje handiak dituela. Horren harira, arduraz ikusten dugu nola soldatarik handienak dituzten eta langileen trebakuntza eta prestakuntza handiagoa den sektoreetan, hau da, zuzendaritza-lanpostuetan, soldata-arrakala ere handiagoa dela. Beraz, emakumeen ikasketa-maila altuak ez dio

## El Parlamento Vasco

Expresa, en estos momentos de desesperanza en muchas familias y consternación en toda la Nación, sus condolencias más sinceras y la entrañable solidaridad del pueblo vasco con el pueblo chileno.

Requiere al Gobierno Vasco la asignación de una ayuda de emergencia, proveniente del programa de Ayuda Humanitaria, para apoyar al gobierno chileno en la asistencia a las personas más afectadas así como para la restauración de las infraestructuras, de acuerdo con las necesidades que plantea el Gobierno de Chile.

Convoca al resto de las instituciones vascas, así como a las del Estado para que la solidaridad con Chile se traduzca en la aportación de los medios más adecuados para paliar los efectos directos de la catástrofe y restituir las infraestructuras más básicas".

## 9. (nuevo). Declaración institucional a favor de la igualdad salarial. [09\11\05\00\0023]

"La Unión Europea está promoviendo declarar el 22 de febrero como día internacional por la igualdad salarial. Los estudios de ámbito comunitario nos indican que, aunque en términos generales la brecha salarial de género se ha ido reduciendo, lo hace a un ritmo muy lento, y constituye uno de los aspectos más preocupantes de la menor calidad del empleo de las mujeres respecto al de los hombres.

La brecha salarial de género es una más de las manifestaciones de discriminación de las mujeres, en este caso en los mercados de trabajo, que afecta a las mujeres sin entender de edades o de cualificación. Y los datos objetivos y las encuestas realizadas nos trasladan que la brecha salarial, lejos de disminuir, se mantiene, y lo hace en elevados porcentajes. En este sentido, comprobamos con preocupación cómo en aquellos sectores donde los salarios son más altos y donde la capacitación y formación de los recursos humanos también es más alta, es decir, en los puestos directivos, la brecha salarial es también





kontra egiten diskriminazio-praktikei.

Genero soldata-arrakalaren murrizketa emakumeen elkarteen etengabeko aldarrikapena izan da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak landu dituen berdintasunerako plan guztietan sartu den helburu bat izan da. Hala eta guztiz ere, euskal instituzioetatik gaur arte burutu diren ekintzekin ez dugu lortu soldata-arrakala hau modu nabarmenean gutxitzea. Gainera, krisi ekonomikoko testuinguru honetan ardua berezia izan behar dugu genero soldata-arrakala hau handitu ez dadin.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta lan-merkatuan esku hartzen duten eragile ekonomiko eta sozial guztiei eskatzen die txerta dezatela euren lehentasunezko helburuen artean genero soldata-arrakalaren murrizketa eta helburu hau izan dadila negoziazio kolektibo guztien parte".

más elevada, sin que el alto nivel de estudios de las mujeres contrarreste las prácticas discriminatorias.

La reducción de la brecha salarial de género ha sido una reivindicación persistente de las organizaciones de mujeres y ha constituido un objetivo que se ha incluido en todos los planes de igualdad elaborados por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. A pesar de ello, con las acciones llevadas a cabo hasta el momento desde las instituciones vascas no hemos conseguido disminuir de manera significativa esta brecha salarial. Además, en este contexto de crisis económica debemos velar de manera especial por que la brecha salarial de género no aumente.

Por todo ello, el Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco y al conjunto de los agentes económico-sociales que intervienen en el mercado laboral que incorporen entre sus objetivos prioritarios la disminución de la brecha salarial de género y que este objetivo forme parte de todas las negociaciones colectivas".

